

URTEBETE BETE DUGU!


Orain dela urtebete jarri zen abian **gkz berdea**, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultate osoarentzat argitaratzen den hiru hilez behingo buletin digitala. **gkz berdearen** helburua Fakultateko kontsumoari buruzko datuen berri ematea da, bai eta jardunbide onak eta ingurumenarekin zerikusia duen bestelako albisteak hedatzea ere. Lehenengo urte honetan egindako argitalpenak eskuratzeko [Klik egin hemen](#).

Fakultateko kontsumoari buruzko hiruhilekoko datuak (2014)

PAPERAREN KONTSUMOA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
8.500 orri	22.000 orri	41.500 orri

Azken bederatzi hilabeteetan hau izan da paperaren kontsumoa (orrien kopuruan):



Udako hiruhilekoan markak hautsi dira. Marka positiboa uztailean ezarri da, urte osoko kontsumorik txikiena lortu baita. Espero zitekeen kopurua zen hori, uztailean irakaskuntza jarduera eta, orokorrean, Fakultatearen jarduera, urteko txikienak baitira. Irailean, aldiz, ikasturte akademikoa hasten da eta ikasgeletan lauhilekoan landuko den material guztia inprimatzen da. Hala lortu da urteko marka negatiboa, hau da, kontsumitutako paper gehiena.


KARTUTXOAK/TONERRA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

	2014ko HIRUGARREN HIRUHILEKOA
Inprimagailuen kartutxoak	14 unitate
Funtzio anitzeko fotokopiagailuen tonerra	5 unitate

Uztailean funtzio anitzeko fotokopiagailuetarako tonerraren 5 unitate ordeztu ziren. Lehengo 4 unitateei batuta, urtariletik guztira 9 toner kontsumitu dira. Inprimagailuen kartutxoei dagokienez, guztira 14 unitate ordeztu dira; aurten orain arte 38 kartutxo kontsumitu dira. Inprimagailuen kartutxo horien hornitzailea aldatu da. Orain, kartutxo birmanufakturuak kontsumitzen dira, hau da, kartutxoak agortzen direnean birkargatu egiten dira, bota behar izan gabe (horrela, hondakin gutxiago sortzen dira). Kartutxo horien edukiera (aukeren arabera) batzuetan jatorrizkoena baino txikiagoa izaten da; horregatik, normala da kartutxo gehiago ordezte aurreko urtearekin alderatuta.

PAPER BIRZIKLATUA (Fakultatea)

Beotibar Recycling S.L.k, Bizkaiko Campusean edukiontzi urdinetan uzten den paperaren bilketaz arduratzen den enpresak, gure Fakultatean bildutako kilogramoen kopuruak eman dizkigu. Azken 6 hilabeteetako bilakaera honako hau izan da:



Europako mugikortasun jasangarriaren astea



Irailean, 16tik 22ra, **Europako Mugikortasun Jasangarriaren Astea** egin zen, Europako hainbat tokitan 2002. urteaz geroztik egiten den astea. Europako Mugikortasunaren Astea kontzientiazio-kanpaina bat da, eta helburu hauekin egiten da: herritarrak garraio publikoaren eta bizikletaren erabilerari eta oinez ibiltzeari buruz sentsibilizatzea eta, halaber, Europako hiriak garraio modu horiek sustatzera eta horretarako beharrezkoak diren azpiegitura berrietan inbertitzera animatzea. Car Free Day delakoa, Automobilik Gabeko Eguna, ekimen horren zati bat da, eta urtero irailaren 22an egiten da.

UPV/EHUK ere aste horretan parte hartu zuen, eta hartara, **hiru Campusetan hainbat ekitaldi** egin zen. Nabarmendu beharrezkoa da Bilboko Udalaren eta Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen artean egin zen **Garraio Lasterketa** bitxia, Bilbon hainbat garraiobide erabiliz egin baitzen: autobusa, metroa, autoa, bizikleta... Lasterketaren helburua ez da lehiatzea soilik; aitzitik, garraio horietako bakoitzaren eraginkortasuna konparatzeko balio du, joan-etorriaren iraupenari, benetako abiadurari, kostu ekonomikoari eta karbono-aztarnari dagokienez.

Mugikortasunari buruzko ekimenak Bizkaiko Campusean

Fakultatea Leioa-Erandio udalerrien eremuan dago, hurbilen dauden biztanle-guneetatik urrun samar; irisgarritasun handia ez daukanez, "nahitaez" motordun ibilgailuak erabili behar izaten ditugu, batik bat autobusa eta/edo automobila. Eragozpen hori egon arren, Bizkaiko Campusak zenbait zerbitzu eskaintzen ditu, gure garraio-ohituren ondorioz sortzen dugun ingurumen-eragina murrizteko:



IKASLEENTZAKO APARKALEKUA BIZKAIKO CAMPUSEAN, ERABILTZAILE ASKOKO IBILGAILUETARAKO

Garraio iraunkorragoa bultzatzeko helburuz, Leioara egunero ibilgailu berean hiru lagunekin (edo gehiagorekin) igotzen zareten ikasleok aparkaleku-plaza bat bermatuta izango duzue Liburutegiko eraikinean.

[Klik egin hemen informazio gehiago lortzeko.](#)

APARKA PROIEKTUA

Campusera joateko bizikleta erabiltzen dutenentzat, UPV/EHUK bizikletetarako Aparka izeneko aparkalekua eskaintzen du. Aparkak ibilgailu bakoitza gune itxi propio batean lapurretetatik eta meteorologia txarretik babestuta gordetzeko aukera ematen du. Ematen den txartel pertsonalizatuarekin, erabiltzailea Aparkaren webgunera eta mugikorretarako aplikaziora (App) sartu ahal da, eta zerbitzu osagarriak ere eskuratu ahal ditu, adibidez konponketa-zerbitzua, bizikleta campusean aparkatuta dagoen bitartean.

[Klik egin hemen Aparka proiektuari buruz informazio gehiago lortzeko.](#)



Ba al dakizu...?


Europar Batasunean, garraioaren energia-beharrizanen % 96 baino gehiago petrolioaren eta bere eratorrien mendean daude.

Garraioaren berotegi-efektuko gasen igorpenek, nazioarteko aireko garraioa eta itsasoko garraioa barnean direla, % 34 inguru egin zuten gora 1990 eta 2008 bitartean. Epealdi berean, energia-industriek % 9 murriztu zituzten beren igorpenak.

Garraioak EBko berotegi-efektuko gasen igorpenen laurden bat sortzen du. Igorpen guztien % 71,3 errepide bidezko garraioak sortzen ditu (2008).

Hemen EBko mugikortasunari eta garraioari buruzko datu eta kopuru gehiago kontsultatu ahal dituzu:

http://ec.europa.eu/transport/strategies/facts-and-figures/all-themes/index_es.htm



Eta... zer egin dezaket nik?

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) Turismo ibilgailuak eraginkortasunez gidatzeari buruz egindako eskuliburuan gomendio batzuk biltzen dira gidatzeko modua optimizatzeko eta hauek lortzeko:

- Erregai-kontsumo txikia.
- Ingurumen-kutsadura murriztea.
- Erosotasun handiagoz gidatzea.
- Errepidean arriskuak murriztea.

Eskuliburua eskura daukazue lotura honetan:

<http://www.eve.es/CMSPages/GetFile.aspx?guid=68cd6bd4-4476-4022-81a9-8502af43b71d>


Eta gogoan izan...

KAFFE-MAKINAK "EDALONTZIRIK GABE" AUKERA

Gogoan izan Fakultatearen barruan dauden kafe-makinek aukera ematen dutela kafea 5 euro-zentimo gutxiagoan kontsumitzeko; beraz, 0,30€-ko kafe bat 0,25€ kostatuko zaizu. Zure katilu berrerabilgarriarekin, plastiko-hondakin gutxiago sortzea lortzen dugu.

Urteko lehenengo hiruhilekoan, Fakultateko makinetan egindako 18.160 kontsumiziotatik 696 "edalontzirik gabe" aukerarekin egin ziren, hau da, guztien % 3,83. Urteko bigarren hiruhilekoan, 11.375 kontsumiziotatik 1.000 (% 8,79) edalontzirik gabe egin ziren.

Plastikozko hondakin gutxiago sortzeko, erabili zure katilua!



Edalontzirik gabeko aukeraketa
kafe= 0,25 €

HAINBAT ALDIZ ERABILTZEKO BARNE-ERABILERAKO GUTUN-AZALAK

Berrerabil itzazu Unibertsitateko barne-postako gutun-azalak. Gutun-azal horiek (ikusirudia) hainbat aldiz erabili ahal dira; beraz, jaso duzun gutun-azal berbera erabil ezazu agiriak erabiltzeko, gutun-azal berri bat hartu beharrean. Gutun-azalak berrerabiltzea ez da oso ohikoa Fakultatean. Horregatik, ohitura hori hartzera animatu nahi zaituztegu, hala baliabideen alferrikako kontsumoa murriztea lortuko baitugu.

Datuen iturriak::

- <http://www.bilbaosinmicoche.net/>
- <http://ec.europa.eu/>
- <http://www.ehu.es/>
- <http://www.eve.es/index.aspx>
- <http://www.mobilityweek.eu/>



Reutiliza los sobres

Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta:

gkz.ekoscan@ehu.es

Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!